


IKONOGRAFIA



ARAUDI OROKORRA



DEBA-ZUMAI A RTEKO ITSASERTZEKO BIOTOPO BABESTUAREN IBILBIDE TEMATIKOAK

A ALGORRI (154. or.)

SL Gi 5001



Zumaia flysch liburu geologiko bat da, eta geruzaz geruza, orri orri 50 milioi urtetik gorako historia biltzen du. Informazio hain baliotsua eskaintzen du ezen adituek mundu mailako mugarrizko geozientifiko izendatu dute. Algorri ibilbidea San Termo ermitatik abiatzen da eta flyscheko kapitulu biziena zeharkatzen du: Paleozenoa. Iraganaren detektibe gisa ibiliko gara horretan zehar, gertaera ziragarriak aurkitzen ditugula, hala nola dinosauroen suntsipena edo historia geologikoan erregistratu diren klima aldaketak.

S SAKONETA (200. or.)

PR Gi 5001



Ibilbide honek biotopoaren alderik ezkutuen eta deigarrienera garratza: Sakoneta eta Mendata gunea. Bidexka itsaslabarren ertetik beretik egiten du aurrera eta paisaiaren hainbat elementu erakusten dizkigu: senaia bakartiak, harkaitz zuriko harresiak, ur-jauzetan amiltzen diren errekek eta Kantauri Itsasoko marearteko zabalguneko handienetako bat. Mareabeheran azaltzen den plataforma harritsu zabal horretan, itsasoaren indarrak bitxi geomorfologiko bat landu du, ametszeko paisaia bat, zeinak, gainera, biotopoaren natura ondarea hobeki ulertzeko balio duen.

E ELORRIAGA (190. or.)

SL Gi 5002



Elorriaga ibilbide zirkularra biotopoko landa paisaiatik igarotzen da eta kostalde guztiko balioak zabalen eta ikusgarrietako batera hurbiltzen da: Elorriagako begiratokia. Hor landak bat-batean moztu eta ehun metrotik gorako labarrak zabalitzen dira gure oinetan, ikuspegi bikaina eskaintzen dutela: marearteko zabalguneko handia, Aiburiko senaia eta Pikoteko harri jauste eskergak. Eszenatoki honetan agertzen zaizkigu itsaslabarren dinamika aktiboa eta biotopoaren itsasertzeko ekosismen konplexutasuna ulertzeko gakoak.

L LAPARI (222. or.)



Ibilbide labur eta erraz hau Debako itsas pasealekutik abiatzen da, hondartzen ondotik, eta biotopoko harkaitz zaharretara garratza: flysch beltza. Formazio honek, Zumaia baino gutxiago ezaguna bada ere, puntu guztiz deigarri batzuk ditu, hala nola Aitzandiko tolestura handiak edo Debako noduluak eta septareak.

Bideak, era berean, Behe Kretazeoko koral paisaian sartzen gaitu eta ohiz kanpoko hedadura dakarkio biotopoaren erregistro geologikoari.

T TALAIA (234. or.)

GR 121 Talaia ibilbidea

Talaia ibilbideak Gipuzkoako kostalde osoa hartzen du, Hondarribitik Saturraraineraino, eta biotopoaren ibilbide honetako ikusgarrien eta interesgarrietako bat da, zalantzarik gabe. Ibilbide honek bidexka sareko puntu ikusgarrien eta interesgarrietako batzuk lotzen ditu ezin hobeki seinaleztaturiko bidexka batetik, itsasertza Zumaia eta Itxaspe artean zeharkatzen duela. Talaia ahalegin fisiko handiagoko eskatzen du, baina ingurune babestu honen zientzia, paisaia eta natura balioak ezagutzeko erarik onena da. Leku bakoitzari buruzko azalpenak dagozkion ibilbide tematikoaren barnean aurkituko dituzu.



ALGORRI INTERPRETATIO ZENTROA
10:00 - 13:30 // 16:00 - 18:30
T. 943 143 100
www.algorri.eu // flysch@gipuzkoa.net

